

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA

*Azterlan eta Lege Araubide
Zuzendaritza
Prospekzio Soziologikoen Kabinetea*

PRESIDENCIA

*Dirección de Estudios y
Régimen Jurídico
Gabinete de Prospección Sociológica*

**Lan osasuna eta segurtasunari buruzko herritarren
pertzepzioak**

***Percepciones de la ciudadanía sobre salud y
seguridad laboral***

**2008ko azaroa
Noviembre 2008**

http://www.euskadi.net/estudios_sociologicos

Aurkibidea / Índice

SARRERA / INTRODUCCIÓN	1	C – LAN OSASUNAREN ETA SEGURTASUNAREN ARDURA /	
LABURPENA / SÍNTESIS	3	RESPONSABILIDAD DE LA SALUD Y LA SEGURIDAD	
A – OSASUNAREN ETA SEGURTASUNAREN PERTZEPZIOA		LABORAL	30
PERCEPCIÓN DE LA SALUD Y LA SEGURIDAD	6	• Enpresako prebentzio-ordezkarri figuraren ezagutza /	
• Segurtasunaren garrantzia hainbat arlotan /		<i>Conocimiento de la figura del delegado de prevención</i>	31
<i>Importancia de la seguridad en varias áreas</i>	7	• Lan osasunaren eta segurtasunaren kontrolaren arduradunak /	
• “Osasuna eta segurtasunaren” esanahia /		<i>Responsables del control de la salud y la seguridad en el trabajo</i>	33
<i>Significado de “salud y seguridad”</i>	10	• Lan osasuna eta segurtasuna handitzeko laguntzak /	
B – LANEKO OSASUNA ETA SEGURTASUNA /		<i>Ayudas al incremento de la salud y la seguridad laboral</i>	35
SALUD Y SEGURIDAD LABORAL	14	• Administrazio publikoaren arreta arloak /	
• Lan istripuen edo gaixotasunen probabilitatea /		<i>Áreas de atención de la Administración Pública</i>	37
<i>Probabilidad de accidentes o enfermedades laborales</i>	15	• Osalani buruzko ezagutza maila /	
• Laneko istripu larrien edo gaixotasunen arrazoiak /		<i>Nivel de conocimiento de Osalan</i>	40
<i>Motivos de los accidentes graves o enfermedades laborales</i>	17	• Osalaren irudia / Imagen de Osalan	42
• Laneko osasuna eta segurtasunari buruzko iritzi orokorrak /		ZEHAZTASUN TEKNIKOAK / FICHA TÉCNICA	44
<i>Opiniones generales sobre salud y seguridad laboral</i>	19		
• Lan osasuna eta segurtasunari buruzko araudiaren ezagutza maila /			
<i>Nivel de conocimiento de la normativa sobre salud y seguridad laboral</i>	26		
• Lan osasuna eta segurtasunari buruzko araudiaren betetzea			
enpresetan / Cumplimiento de la normativa sobre salud y seguridad			
laboral en las empresas	28		

Sarrera / Introducción

Helburuak eta Informazioaren Iturria / Objetivos y origen de la Información

Ikerketa honen **helburua** EAEko herritarrok laneko osasuna eta segurtasunari buruz dugun jarrera ezagutzea da. Zehazkiago, ondoko alderdiak dira ezagutu nahi ditugunak: segurtasunak, oro har, herritarrentzat duen garrantzia, “osasuna eta segurtasuna” terminoaren esanahia, lan arloko prebentzioaren, istripuen eta gaixotasunen eta horien kontrolaren ardurari buruzko iritziak. Horretarako 18 urte eta gehiagoko herritarrek gai horiei buruzko galderari eman dizkieten erantzunak aztertuko ditugu.

Gai hau aztertzen dugun lehen aldia izanik, Erresuma Batuekiko ditugun antzekotasun eta desberdintasunak aurkeztuko ditugu konparazio daturik daukagun kasuetan.

Galdera zehatzak **Osalanen eskaera** baten ondorioz landu dira, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetearekin elkarlanean.

Lan honetako emaitzak 2008ko iraila-urria Euskal Soziometroa bildumaren 38. ikerketan erabilitako galdesortan berariaz sartutako galdera multzo batetik datoz.

El **objetivo** de este estudio es conocer las opiniones que la población de la CAPV tiene sobre la salud y la seguridad en el trabajo. Más concretamente, queremos conocer los siguientes aspectos: la importancia de la seguridad, en general, para la ciudadanía, el significado del término “salud y seguridad”, las opiniones sobre la prevención, los accidentes y las enfermedades laborales y la responsabilidad de su control. Para ello analizaremos las respuestas dadas por los ciudadanos y ciudadanas de 18 y más años a preguntas realizadas sobre estas cuestiones.

Siendo esta la primera ocasión en que estudiamos el tema, presentaremos las similitudes y diferencias que tenemos respecto a Gran Bretaña en los casos en que tengamos datos de comparación.

Las cuestiones concretas planteadas han sido elaboradas a partir de **una petición de Osalan**, y en colaboración con el Gabinete de Prospección Sociológica de la Presidencia del Gobierno Vasco.

Los resultados de este trabajo proceden de un bloque de preguntas ad hoc incluidas en el cuestionario del estudio nº 38 de la serie de Sociómetros Vascos, realizado en setiembre-octubre de 2008.

Kolektibokako azterketa / Análisis por colectivos

Inkestaren datuak biztanleria guztirako ez ezik segmentazio soziodemografiko eta soziopolitikoaren arabera ere aztertu dira. Ondokoak dira aldagai soziodemografiko eta jarrerazko horiek (sortutako azpitaldeak letra etzanean azaltzen dira):

- Lurraldea: *Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa*.
- Sexua: *gizonezkoa eta emakumezkoa*.
- Adin taldeak: *18-29, 30-45 eta 46-64*.
- Lan ordaindua: *bai* (lan ordaindua) eta *ez* (langabezia, etxeko lanak, ikasten nagusiki, jubilatu, pentsioduna, elbarritua edo beste egoera batzuk).
- Hautemandako klase soziala: *baxua* (klase baxua edo langileena), *ertaina*, *altua* (ertaina-altua edo diruduna) eta *ed/ee*.
- Ezker-eskuin ardatza: *ezkerra* (oso ezkerrekoa+ezkerrekoa+zentro ezkerrekoa), *zentroa* (zentrokoa), *eskuina* (zentro eskuinekoa+eskuinekoa+oso eskuinekoa), *ed/ee*.

Los datos de la encuesta son analizados, no sólo desde los totales poblacionales, sino también en base a segmentaciones sociodemográficas y sociopolíticas. Las variables diferenciadoras consideradas (y los subcolectivos formados, que aparecen en cursiva) son las siguientes:

- Territorio: *Araba, Bizkaia y Gipuzkoa*.
- Sexo: *varón y mujer*.
- Grupos de edad: *18-29, 30-45 y 46-64*.
- Trabajo remunerado: *sí* (trabajo remunerado), *no* (en paro, labores de casa, estudiando principalmente, jubilado/a, pensionista, incapacitado/a u otras situaciones).
- Clase social sentida: *baja* (media baja u obrera), *media*, *alta* (media-alta o acomodada) y *ns/nc*.
- Eje izquierda-derecha: *izquierda* (extrema izquierda+izquierda+centro izquierda), *centro* (centro), *derecha* (centro derecha+derecha+extrema derecha) y *ns/nc*.

Laburpena / Síntesis

Zer garrantzia eta esanahi ematen diogu osasuna eta segurtasunari?

EAEko herritarrek segurtasunari eta osasunari garrantzia nabarmena eman diote, hainbat arlotaz galdetu zaienean ez dute haien artean bereizketa argirik egin. Honela, errepideetako segurtasuna eta elikagaiena jo dira garrantzitsuenak (%99k oso edo nahikoa garrantzitsutzat dituzte) eta jostailuen segurtasunak du garrantzia txikiena (%95k), gainontzeko arloek (botikek, etxeak, garraioak) tarteko ehunekoak jaso dituzte. Aztertutako arlo horien artean, laneko osasuna eta segurtasuna %98k oso edo nahikoa garrantzitsutzat jo dute.

Osasuna eta segurtasuna hitzekin zer ulertzen duten galdetu zaienean, inkestatuek espontaneoki erantzun desberdin ugari eskaini dituzte. Honakoak dira aipamen gehien jaso dituztenak: pertsonaren ongizatea edota segurtasuna ziurtatzeko arauak, erregulazioak (%29k), garrantzitsua/ beharrezkoa dela (%10ek), sen onarekin azaltzen den zerbait / esaldiak berak azaltzen du esanahaia (%8k) eta lantokiko segurtasun arauak, erregulazioak (%5ek). Beste esanahi asko agertu dira aipamen gutxiagorekin (gaixoen zaintza, gaixotasun eta izurriteen prebentzioa, etxeko segurtasuna, produktuena, elikagaiena, errepideetakoa eta abar) eta %9k beste esanahirik aipatu dute. Gainera, hamar herritarretatik hiruk (%29k) ez dakite edo ez dute erantzun.

EAE eta Erresuma Batuko datuak konparatzean, azken hauek osasuna eta segurtasuna hitzak entzuten dituztenean lehenik lantokiko segurtasun arauak, erregulazioak direla ulertzen dutela ikus dezakegu eta gurean askoz atzerago dago esanahi hori (%29k eta %5ek aipatu dituzte, hurrenez hurren).

Zein da lan istripuak edo gaixotasunak izateko probabilitatea eta horien arrazoiak?

EAEko herritar gehienek (%88k) uste dute hobeto prebenitu behar dela lanean ezbehar larriren bat izateko edo lanagatik osasuna hondatzeko probabilitatea eta soilik %7k sahiestezina dela, ezin dela prebenitu.

Lan istripu larriak edo osasuna emendatzeak nagusiki enpresarien axolagabekeriagatik gertatzen direla diote %21ek, langileen zuzendariek ezagatik %12k eta administrazioaren kontrol faltagatik %10ek. Alabaina, nagusiki zergati guzti hauengatik gertatzen direla diote herritarren erdiek (%50ek).

Klase sozial baxuan edota ezkerrean kokatu direnek aipatu dute gehien enpresarien axolagabekeria eta langileen zuzendaria eza, aldiz, klase altuan edo eskuinean kokatu direnek.

¿Qué importancia y significado damos a la salud y la seguridad?

Las y los ciudadanos de la CAPV dan una notable importancia a la seguridad y a la salud en diferentes ámbitos y no diferencian claramente entre ellos. Así, consideran los más importantes la seguridad en carretera y la seguridad de los alimentos (un 99% los consideran muy o bastante importantes) y la menos importante la seguridad de los juguetes (95%), el resto de áreas reciben porcentajes intermedios (medicinas, hogar, transporte). Entre los ámbitos analizados, la salud y la seguridad en el trabajo es considerado muy o bastante importante por un 98%.

Cuando se les ha preguntado qué entienden con las palabras salud y seguridad, las y los encuestados espontáneamente dan una amplia variedad de respuestas. Los siguientes significados son los más mencionados: reglas, regulaciones para asegurar el bienestar y/o la seguridad personal (29%), importante / necesario (10%), se explica con sentido común / por sí mismo (8%) y reglas, regulaciones de la seguridad en el lugar de trabajo (5%). Otros muchos significados reciben porcentajes inferiores (cuidado de pacientes, prevención de enfermedades y epidemias, seguridad en el hogar, de los productos, alimentaria, en carretera, etc.) y un 9% mencionan otros significados. Además, tres de cada diez ciudadanos (29%) no saben o no contestan.

Al comparar los datos de la CAPV y del Reino Unido observamos que la población de esta última entiende las palabras salud y seguridad como reglas, regulaciones de la seguridad en el lugar de trabajo, en primer lugar, y entre nosotros ese significado es mucho menos recogido (29% y 5% los dicen, respectivamente).

¿Cuál es la probabilidad de accidentes y enfermedades laborales y cuáles sus causas?

La mayoría de la ciudadanía de la CAPV (88%) creen que hay que prevenir mejor la probabilidad de sufrir percances graves o deterioros de la salud debido al trabajo y únicamente un 7% creen que es inevitable, no se puede prevenir.

Un 21% señalan que los accidentes de trabajo graves o los deterioros en la salud se producen principalmente por el desinterés de los empresarios, un 12% por las imprudencias que cometen las y los trabajadores y un 10% por falta de control de la administración. Sin embargo, la mitad de la población (50%) señala que se producen por todas estas causas juntas.

Quienes se sitúan en la clase social baja y/o en la izquierda ideológica son quienes más mencionan el desinterés de los empresarios y, en cambio, quienes se sitúan en la clase alta o en la derecha son quienes más se refieren a las imprudencias de las y los trabajadores.

Nolakoak dira lan osasuna eta segurtasunari buruzko iritzi orokorrak?

Lantokiko osasuna eta segurtasunari buruz inkestan jasotako iritzi orokorrak bi multzotan sailka ditzakegu. Alde batetik, gizarte zibilizatueta laneko osasun eta segurtasuna legez arautu behar dela eta kontrolaren ardura administrazioarena, enpresena eta sindikatuena dela biltzen duten baieztapenekin gutxienez inkestatuen %67 guztiz edo nahikoa ados daude. Beste aldetik, laneko osasuna eta segurtasuna legez arautzearen beharrik ez dagoela eta kontrola enpresen esku utzi behar litzatekeela dioten baieztapenekin soilik inkestatuen %10 eta %15 artean daude guztiz edo nahikoa ados.

Nolakoak da arautegiaren ezagutza eta betetze maila?

Herritarren %33k diote laneko osasuna eta segurtasunari buruzko arautegia eta langileei eskatzen zaizkien eskakizunak ezagutzen dituztela (ezin hobeto edo parte batean), %20k ez gehiegi eta %43k ez dituztela ezagutzen (edozelan, gehien ezagutzen dituzte lan ordaindua dutenek). Bestalde, enpresek laneko segurtasuna eta osasunari buruzko araudiaren eskakizun eta exigentziak juxtuan betetzen dituztela baloratu dute herritarrek, 3 punturekin baloratu baitute (1a “batere ez ditu betetzen” eta 5a “osorik betetzen dituzte” izanik).

Zerk lagunduko lioke laneko osasuna eta segurtasunari eta administrazio publikoek non jarri beharko lukete arreta?

Laneko osasuna eta segurtasuna hobetu dezaketen hainbat gauza zerrendatu zaizkielarik, jendeak honenbestean aipatu ditu: enpresaria arduratu dadila bere enpresako segurtasunaz eta osasunaz (%30ek), osasun eta segurtasunari buruzko legeak errespetaraztea (%29k), sen ona, sentsuz jokatzera (%22k). Askoz gutxiagok aipatu dituzte jarduera onak sustatzea (%8k), langileen salaketak (%6k) edota besterik (%1ek).

Ilido honekin jarraituz, administrazio publikoek nagusiki arreta zein hiru arlotan jarri behar luketen galdetuta, %57k enpresariaren kontzientziaketa eta sensibilizazioa, %50ek ezbehar kopurua ikuskatzea eta kontrolatzea, beste horrenbestek lan arriskuen inguruko formazioa, %34k lan istripuen ikerketa eta analisisa, %31k administrazio publikoaren konpromisoa, %29k gizartearen kontzientziaketa eta sensibilizazioa eta %20k lan osasuna eta lanbide-gaixotasunak aipatu dituzte.

Azkenik, Osalan herritarren %31k ezagutzen dute (oso edo nahikoa ondo edota pixka bat), %22k entzun dute hartaz hitz egiten baina ez dute batere ezagutzen eta %41ek ez dute inoiz hartaz hitz egiten entzun ere egin. Dena dela, inpresio oso ona edo ona dute %18k, ez ona ez txarra %19k eta oso edo nahikoa txarra soilik %4k.

¿Cómo son las opiniones generales sobre salud y seguridad laboral?

Podemos clasificar en dos grupos las opiniones generales recogidas en la encuesta sobre la salud y la seguridad en el trabajo. Por un lado, al menos un 67% están muy o bastante de acuerdo con las afirmaciones que se refieren a que en las sociedades civilizadas ha de regularse por ley la salud y la seguridad laboral y que la responsabilidad de su control es de la administración, las empresas y los sindicatos. Por otro lado, únicamente entre un 10% y un 15% están muy o bastante de acuerdo con las afirmaciones referentes a que no hay necesidad de regular legalmente la salud y la seguridad laboral y que habría de dejarse el control en manos de las empresas.

¿Cuál es el grado de conocimiento y cumplimiento de la normativa?

Un 33% de la población dicen que conocen la normativa sobre salud y seguridad y los requisitos exigidos a las y los trabajadores (perfectamente o en parte), un 20% no demasiado y un 43% no los conocen (en todo caso, quienes mejor los conocen son quienes tienen un trabajo remunerado). Por otro lado, la ciudadanía valora que las empresas cumplen con los requisitos y exigencias de la normativa en materia de salud y seguridad laboral, pues lo valoran con 3 puntos (siendo 1 “cumplimiento nulo” y 5 “cumplimiento total”).

¿Qué ayudaría a la salud y la seguridad laboral y en qué deberían centrarse las administraciones públicas?

Al serles enumeradas una serie de cosas que pueden ayudar a mejorar la salud y la seguridad en el trabajo la gente los señala en la siguiente medida: que el empresario(a) se preocupe de la salud y la seguridad en su empresa (30%), que se hagan respetar las leyes de salud y seguridad (29%) y el sentido común (22%). Han sido muchos menos quienes han señalado que se promocionen las buenas prácticas (8%), las denuncias por parte de las y los trabajadores (6%) y otras (1%).

En este sentido, habiéndoles preguntado sobre las tres áreas en que la administración pública debería centrar sus esfuerzos, un 57% señalan la concienciación y sensibilización de las y los empresarios, un 50% la inspección y control de la siniestralidad, otro 50% la formación en prevención de riesgos laborales, un 34% la investigación y análisis de los siniestros laborales, un 31% el compromiso de las administraciones públicas, un 29% la concienciación y sensibilización de la sociedad y un 20% la salud laboral y las enfermedades profesionales.

Por último, un 31% de la ciudadanía conocen Osalan (muy o bastante bien y/o un poco), un 22% han oído hablar pero de él pero no conocen nada y un 41% nunca han oído hablar de él. De todas maneras, un 18% tienen una impresión muy o bastante favorable, un 19% ni favorable ni desfavorable y únicamente un 4% muy o bastante desfavorable.

A - Osasunaren eta segurtasunaren pertzepzioa / Percepción de la salud y la seguridad

- **Segurtasunaren garrantzia hainbat arlotan /
Importancia de la seguridad en varias áreas**
- **“Osasuna eta segurtasunaren” esanahia / Significado de “salud y seguridad”**

Osasunaren eta segurtasunaren pertzepzioa / Percepción de la salud y la seguridad

Segurtasunaren garrantzia hainbat arlotan / Importancia de la seguridad en varias áreas

(GUZTIZKOAK ETA KOLEKTIBOKA | / TOTALES Y POR COLECTIVOS I)

Zenbait jende arduratzen duten hainbat gai irakurriko dizkizut. Zein garrantzitsu da horietako bakoitza zuretzat? /
Voy a leerle una serie de cuestiones que importan a algunas personas. ¿Cómo de importante es cada una de ellas para Ud.?

(OSO + NAHIKOA GARRANTZITSUA) / (MUY + BASTANTE IMPORTANTE)	2008KO URRIA OCTUBRE 2008	LURRALDEA / TERRITORIO			SEXUA / SEXO		ADINTALDEAK GRUPOS DE EDAD			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	18-29	30-45	46-64	≥65
ERREPIDEETAKO SEGURTASUNA / SEGURIDAD EN CARRETERA	99	99	99	99	99	99	99	99	99	99
ELIKAGAIEN SEGURTASUNA / SEGURIDAD ALIMENTARIA	99	98	98	99	98	99	98	99	99	99
BOTIKEN SEGURTASUNA / SEGURIDAD DE LAS MEDICINAS	98	99	98	99	98	99	98	98	99	99
LANEKO OSASUNA ETA SEGURTASUNA / SALUD Y SEGURIDAD EN EL TRABAJO	98	98	98	98	98	98	98	98	99	97
ETXEKO OSASUNA ETA SEGURTASUNA / SALUD Y SEGURIDAD EN EL HOGAR	98	98	98	99	98	98	97	98	99	99
GARRAIO PUBLIKOEN SEGURTASUNA / SEGURIDAD DEL TRANSPORTE PÚBLICO	98	98	98	99	98	98	98	98	99	97
JOSTAILUEN SEGURTASUNA / SEGURIDAD DE LOS JUGUETES	95	93	95	96	94	96	93	96	95	94

EAEko herritarrek ez dute bereizketarik egiten hainbat arlotan osasunari eta segurtasunari ematen dioten garrantziaz galdetu diegunean, guztiak garrantzitsutzat jotzen dira. Horrela,%99k aipatu dute errepideetako segurtasuna oso edo nahikoa garrantzitsua dela eta %95ek jostailuen segurtasuna, gainontzeko arloek tarteko ehunekoak jaso dituzte.

Lurraldea, sexua edo adina direla eta ez dago alderik arlo desberdinetan osasuna eta segurtasunari ematen zaion garrantzian.

La ciudadanía de la CAPV no establece diferencias respecto al grado de importancia que tienen para ellos la salud y la seguridad en diferentes ámbitos, todos se consideran importantes. Así, un 99% han mencionado que la seguridad en carretera es muy o bastante importante y un 95% que lo es la seguridad de los juguetes, el resto de ámbitos reciben porcentajes intermedios.

No hay diferencias en la importancia concedida a la salud y la seguridad en diferentes ámbitos en función del territorio, el sexo o la edad.

Osasunaren eta segurtasunaren pertzepzioa / Percepción de la salud y la seguridad

Segurtasunaren garrantzia hainbat arlotan / Importancia de la seguridad en varias áreas

(KOLEKTIBOKA II / POR COLECTIVOS II)

Zenbait jende arduratzen duten hainbat gai irakurriko dizkizut. Zein garrantzitsu da horietako bakoitza zuretzat? /
Voy a leerle una serie de cuestiones que importan a algunas personas. ¿Cómo de importante es cada una de ellas para Ud.?

(OSO + NAHIKOA GARRANTZITSUA) / (MUY + BASTANTE IMPORTANTE)	2008ko URRIA OCTUBRE 2008	ORDAINDUTAKO LANA TRABAJO REMUNERADO		HAUTEMANDAKO KLASE SOZIALA CLASE SOCIAL PERCIBIDA				EZKER-ESKUIKIN ARDATZA EJE IZQUIERDA-DERECHA			
		Bai SI	Ez NO	ALTUA ALTA	ERTAINA MEDIA	BAXUA BAJA	Ed/Ee Ns/Nc	EZKERRA IZQUIERDA	ZENTROA CENTRO	ESKUIA DERECHA	Ed/Ee Ns/Nc
		ERREPIDEETAKO SEGURTASUNA / SEGURIDAD EN CARRETERA	99	99	99	99	99	98	94	99	99
ELIKAGAIEN SEGURTASUNA / SEGURIDAD ALIMENTARIA	99	99	98	96	99	99	96	99	98	98	98
BOTIKEN SEGURTASUNA / SEGURIDAD DE LAS MEDICINAS	98	98	98	98	99	98	96	99	99	97	98
LANEKO OSASUNA ETA SEGURTASUNA / SALUD Y SEGURIDAD EN EL TRABAJO	98	99	98	97	99	97	95	99	99	95	97
ETXEKO OSASUNA ETA SEGURTASUNA / SALUD Y SEGURIDAD EN EL HOGAR	98	98	98	96	98	98	96	98	98	98	98
GARRAIO PUBLIKOEN SEGURTASUNA / SEGURIDAD DEL TRANSPORTE PÚBLICO	98	98	98	97	99	98	90	98	99	97	98
JOSTAILUEN SEGURTASUNA / SEGURIDAD DE LOS JUGUETES.....	95	96	94	90	95	95	89	95	95	95	95

Hainbat arlotako osasuna eta segurtasunari talde guztietako partaideek eman diote garrantzia oso handia. Alabaina, jostailuen segurtasunari euren burua klase sozial altuan kokatu dutenek edo inon kokatu ez dutenek besteek baino pixka bat garrantzia gutxiago eman diote.


Las y los miembros de todos los colectivos han concedido una importancia muy alta a la salud y la seguridad en los diferentes ámbitos. Aún así, quienes se sitúan en la clase social alta o quienes no se sitúan en ninguna han concedido ligeramente menos importancia a la seguridad de los juguetes que el resto.

Osasunaren eta segurtasunaren pertzepzioa / Percepción de la salud y la seguridad

Segurtasunaren garrantzia hainbat arlotan / Importancia de la seguridad en varias áreas

(ERRESUMA BATUAREKIKO ALDERAKETA / COMPARACIÓN CON EL REINO UNIDO)

Zenbait jende arduratzen duten hainbat gai irakurriko dizkizut. Zein garrantzitsu da horietako bakoitza zuretzat? / Voy a leerle una serie de cuestiones que importan a algunas personas. ¿Cómo de importante es cada una de ellas para Ud.?



☑ EAEko herritarrek hainbat arlotan osasunak eta segurtasunak duten garrantziaz galdetu zainean ez dute bereizketarik egin, arlo guztiak jo dituzte oso edo nahiko garrantzitsutzat (%95 eta %99 artean), aldiz Erresuma Batuan arlo batzuk besteak baino garrantzitsuagozat jo dira. Honela, errepideetako segurtasuna, elikagaien segurtasuna eta botiken segurtasuna dira garrantzitsuenak Erresuma Batuan eta garraio publikoaren edo jostailuen segurtasuna garrantzia gutxien dutenak, EAEn ere azken hori delarik garrantzia txikiena duena.

☑ Las y los ciudadanos de la CAPV no han establecido diferencias cuando se les ha cuestionado sobre la salud y la seguridad en diferentes ámbitos, han considerado muy o bastante importantes todos los ámbitos (entre un 95% y un 99%), en cambio, en el Reino Unido unos ámbitos se consideran más importantes que otros. Así, en el Reino Unido la seguridad en carretera, la seguridad alimentaria y la seguridad de las medicinas se consideran las más importantes y la seguridad del transporte o de los juguetes los menos importantes, siendo también en la CAPV ésta última la menos importante.

Osasunaren eta segurtasunaren pertzepzioa / Percepción de la salud y la seguridad**“Osasuna eta segurtasunaren” esanahia / Significado de “salud y seguridad”**

(GUZTIZKOAK / TOTALES)

Zer ulertzen duzu zuk “osasuna eta segurtasuna” esaldiarekin?* /**¿Qué entiende Ud. por la frase “salud y seguridad”?***

	2008KO URRIA OCTUBRE 2008
PERTSONAREN ONGIZATEA EDOTA SEGURTASUNA ZIURTATZEKO ARAUAK, ERREGULAZIOAK / REGLAS, REGULACIONES PARA ASEGURAR EL BIENESTAR Y/O LA SEGURIDAD PERSONAL	29
GARRANTZITSUA /BEHARREZKOA / IMPORTANTE / NECESARIO	10
SEN ONAREKIN AZALTZEN DA / ESALDIAK BERAK AZALTZEN DU / SE EXPLICA CON SENTIDO COMÚN / POR SI MISMO	8
LANTOKIKO SEGURTASUN ARAUAK, ERREGULAZIOAK /REGLAS, REGULACIONES DE LA SEGURIDAD EN EL LUGAR DE TRABAJO	5
HOSPITALEAK, HIGIENEA, GAIXOEN TRATAMENDUA ETA ZAINTZA /HOSPITALES, HIGIENE, TRATAMIENTO Y CUIDADO DE PACIENTES	3
ARRISKUAK, ISTRIPUAK ETA KALTEAK TXIKIAGOTU / MINIMIZAR LOS RIESGOS, ACCIDENTES Y DAÑOS	2
GEURE BURUA ETA INGURUKOAK BABESTEKO ARDURA HARTU / TOMAR LA RESPONSABILIDAD DE SALVAGUARDARNOS A NOSOTROS MISMOS Y A LOS DE ALREDEDOR	2
ELIKAGAIEN SEGURTASUN PRAKTIKAK / PRÁCTICAS DE SEGURIDAD ALIMENTARIA	1
PRODUKTUEN SEGURTASUNA / SEGURIDAD DE LOS PRODUCTOS	1
GAIXOTASUNEN / IZURRITEEN PREBENTZIOA / PREVENCIÓN DE ENFERMEDADES / EPIDEMIAS	1
GAUZA GUZTIAK INGURUNE SEGURU /HIGIENIKO BATEAN EGIN DAITEZEN ZIURTATU / ASEGURAR QUE TODAS LAS COSAS SE HAGAN EN UN ENTORNO SEGURO/HIGIÉNICO	0
ETXEKO SEGURTASUNA / SEGURIDAD EN EL HOGAR	0
ERREPIDEETAKO SEGURTASUNA / SEGURIDAD EN CARRETERA	0
BESTERIK / OTRAS	9
Ed/Ee / Ns/Nc	29
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES)	100

* ERANTZUNAK ESPONTANEOAK DIRA ETA ONDOREN KODIFIKATUAK./ LAS RESPUESTAS SON ESPONTÁNEAS Y CODIFICADAS POSTERIORMENTE.

“Osasuna eta segurtasuna” hitzen esanahia oso zabala da: %29k pertsonaren ongizatea edota segurtasuna ziurtatzeko arauak, erregulazioak direla uste dute; %10ek garrantzitsua, beharrezkoa dela, %8k sen onarekin azaltzen dela, esaldiak berak azaltzen duela esanahia eta %5ek lantokiko segurtasun arauak, erregulazioak direla. Bestelako esanahiak eman dizkieten kopuruak txikiak dira (%5ren azpitik kasu bakoitzean) eta %9k besterik aipatu dute. Gainera, EAEko hamar herritarretatik hiruk (%29k) ez dute azaldu “osasuna eta segurtasunaz” galdetu zaienean zer ulertzen duten.

El significado de la expresión “salud y seguridad” es muy variada: un 29% entiende que son reglas, regulaciones para asegurar el bienestar y/o la seguridad de la persona, un 10% que es importante, necesario, un 8% que se explica con sentido común, por si mismo y un 5% que son reglas, regulaciones de la seguridad en el lugar de trabajo. Los porcentajes de quienes dan otros significados distintos son pequeños (menores del 5% en cada caso) y un 9% menciona otros significados. Además, tres de cada diez ciudadanos(as) de la CAPV (29%) no han explicado que entienden cuando les hemos preguntado por la expresión “salud y seguridad”.

Osasunaren eta segurtasunaren pertzepzioa / Percepción de la salud y la seguridad

"Osasuna eta segurtasunaren" esanahia / Significado de "salud y seguridad"

(KOLEKTIBOKA I / POR COLECTIVOS I)

Zer ulertzen duzu zuk "osasuna eta segurtasuna" esaldiarekin? / ¿Qué entiende Ud. por la frase "salud y seguridad"?*

	2008ko URRIA OCTUBRE 2008	LURRALDEA / TERRITORIO			SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK GRUPOS DE EDAD			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	18-29	30-45	46-64	≥65
PERTSONAREN ONGIZATEA EDOTA SEGURTASUNA ZIURTATZEKO ARAUAK, ERREGULAZIOAK / REGLAS, REGULACIONES PARA ASEGURAR EL BIENESTAR Y/O LA SEGURIDAD PERSONAL	29	25	29	33	29	30	34	32	27	24
GARRANTZITSUA/BEHARREZKOA / IMPORTANTE / NECESARIO	10	9	9	13	9	11	7	9	11	12
SEN ONAREKIN AZALTZEN DA / ESALDIAK BERAK AZALTZEN DU / SE EXPLICA CON SENTIDO COMÚN / POR SI MISMO.....	8	12	8	4	8	7	5	8	9	8
LANTOKIko SEGURTASUN ARAUAK, ERREGULAZIOAK / REGLAS, REGULACIONES DE LA SEGURIDAD EN EL LUGAR DE TRABAJO	5	4	6	3	6	3	3	5	6	4
HOSPITALAK, HIGIENEA, GAIXOEN TRATAMENDUA ETA ZAINTZA / HOSPITALES, HIGIENE, TRATAMIENTO Y CUIDADO DE PACIENTES	3	2	3	3	2	3	3	3	3	2
ARRISKUAK, ISTRIPUAK ETA KALTEAK TXIKIAGOTU / MINIMIZAR LOS RIESGOS, ACCIDENTES Y DAÑOS.....	2	2	2	1	2	2	2	2	3	1
GEURE BURUA ETA INGURUKOAK BABESTEKO ARDURA HARTU / TOMAR LA RESPONSABILIDAD DE SALVAGUARDARNOS A NOSOTROS MISMOS Y A LOS DE ALREDEDOR	2	1	2	2	2	1	2	2	1	2
ELIKAGAIEN SEGURTASUN PRAKTIKAK / PRÁCTICAS DE SEGURIDAD ALIMENTARIA	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1
PRODUKTUEN SEGURTASUNA / SEGURIDAD DE LOS PRODUCTOS	1	0	1	1	1	0	1	1	0	0
GAIXOTASUNEN / IZURRITEEN PREBENTZIOA / PREVENCIÓN DE ENFERMEDADES / EPIDEMIAS	1	2	1	1	2	1	2	1	1	1
GAUZA GUZTIAK INGURUNE SEGURU /HIGIENIKO BATEAN EGIN DAITEZEN ZIURTATU / ASEGURAR QUE TODAS LAS COSAS SE HAGAN EN UN ENTORNO SEGURO/HIGIÉNICO	0	1	0	0	1	0	0	0	0	0
ETXEKO SEGURTASUNA / SEGURIDAD EN EL HOGAR	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1
ERREPIDEETAKO SEGURTASUNA / SEGURIDAD EN CARRETERA	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0
BESTERIK / OTRAS	9	9	11	7	9	9	10	11	9	8
Ed/Ee /Ns/Nc.....	29	32	27	31	28	30	29	25	27	36
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* ERANTZUNAK ESPONTANEOAK DIRA ETA ONDOREN KODIFIKATUAK. / LAS RESPUESTAS SON ESPONTÁNEAS Y CODIFICADAS POSTERIORMENTE.

"Osasuna eta segurtasuna" aipatzean pertsonaren ongizatea edota segurtasuna ziurtatzeko arauak, erregulazioak direla uste dute talde guztietan multzo nagusienek, nahiz eta arabarren eta 64 urtez gorakoen artean multzo handiagoa osatu duten erantzunik eman ez dutenak. Dena dela, gipuzkoarrek bizkaitarrek eta batez ere arabarrek baino gehiago aipatu dute esanahi hori eta zenbat eta gazteago izan, gehiago aipatu da. Gipuzkoarrek dira, baita, esaldia garrantzitsua, beharrezkoa dela gehien diotenak eta adinean gora egin ahala, aipamenak gehitu dira.

Arabarrek esan dute gehien sen onarekin azaltzen dela, esaldiak berak azaltzen duela bere esanahia eta 30 urtetik gorakoek gazteenek baino zertxobait gehiago esan dute.

Bizkaitarrek, gizonen eta 46-64 urte artekoek aipatu dute gehien esapide horrek lantokiko segurtasun arauak, erregulazioak aipatzen dituela ulertzen dutela.

En todos los colectivos el grupo más numeroso es el de quienes creen que "salud y seguridad" se refiere a las reglas y regulaciones para asegurar el bienestar y/o la seguridad personal, aunque entre las y los alaveses y las y los mayores de 64 años son un grupo más numeroso el de quienes no han respondido. En todo caso, las y los guipuzcoanos han mencionado más que las y los vizcaínos y aún más que las y los alaveses ese significado y también se ha mencionado más, cuanto más joven se es. Son las y los guipuzcoanos también quienes más han mencionado que la frase es importante, necesaria y también se menciona más, a medida que aumenta la edad.

En cambio, las y los alaveses son quienes más han dicho que se explica con sentido común, por si mismo. Por último, las y los vizcaínos y quienes tienen entre 46-64 años son quienes más han dicho que se refieren a las reglas, regulaciones de la seguridad en el trabajo.

Las y los vizcaínos, los hombres y quienes tienen entre 46-46 años son quienes más dicen que significa las reglas, regulaciones de la salud y la seguridad en el trabajo.

Osasunaren eta segurtasunaren pertzepzioa / Percepción de la salud y la seguridad

“Osasuna eta segurtasunaren” esanahia / Significado de “salud y seguridad”

(KOLEKTIBOKA II / POR COLECTIVOS II)

Zer ulertzen duzu zuk “osasuna eta segurtasuna” esaldiarekin? / ¿Qué entiende Ud. por la frase “salud y seguridad”?*

	2008ko URRIA OCTUBRE 2008	ORDAINDUTAKO LANA TRABAJO REMUNERADO		HAUTEMANDAKO KLASE SOZIALA CLASE SOCIAL PERCIBIDA				EZKER-ESKUIJIN ARDATZA EJE IZQUIERDA-DERECHA			
		Bai Sí	Ez No	ALTUA ALTA	ERTAINA MEDIA	BAXUA BAJA	Ed/Ee Ns/Nc	EZKERRA IZQUIERDA	ZENTROA CENTRO	ESKUINA DERECHA	Ed/Ee Ns/Nc
PERTSONAREN ONGIZATEA EDOTA SEGURTASUNA ZIURTATZEKO ARAUAK, ERREGULAZIOAK / REGLAS, REGULACIONES PARA ASEGURAR EL BIENESTAR Y/O LA SEGURIDAD PERSONAL	29	32	27	29	30	27	33	32	25	29	27
GARRANTZITSUA/BEHARREZKOA / IMPORTANTE / NECESARIO	10	9	11	6	11	9	1	11	9	10	9
SEN ONAREKIN AZALTZEN DA / ESALDIAK BERAK AZALTZEN DU / SE EXPLICA CON SENTIDO COMÚN / POR SI MISMO	8	7	8	6	7	9	9	8	8	12	7
LANTOKIKO SEGURTASUN ARAUAK, ERREGULAZIOAK / REGLAS, REGULACIONES DE LA SEGURIDAD EN EL LUGAR DE TRABAJO.....	5	6	4	3	4	6	3	6	4	4	4
HOSPITALAK, HIGIENEA, GAIXOEN TRATAMENDUA ETA ZAINZA / HOSPITALES, HIGIENE, TRATAMIENTO Y CUIDADO DE PACIENTES	3	3	3	4	3	2	2	3	5	0	2
ARRISKUAK, ISTRIPUAK ETA KALTEAK TXIKIAGOTU / MINIMIZAR LOS RIESGOS, ACCIDENTES Y DAÑOS.....	2	2	2	1	2	3	2	2	2	0	3
GEURE BURUA ETA INGURUKOAK BABESTEKO ARDURA HARTU / TOMAR LA RESPONSABILIDAD DE SALVAGUARDARNOS A NOSOTROS MISMOS Y A LOS DE ALREDEDOR	2	2	2	4	2	1	1	1	2	3	2
ELIKAGAIEN SEGURTASUN PRAKTIKAK / PRÁCTICAS DE SEGURIDAD ALIMENTARIA	1	1	1	0	1	1	1	1	1	0	1
PRODUKTUEN SEGURTASUNA / SEGURIDAD DE LOS PRODUCTOS	1	0	1	1	1	0	0	1	0	0	0
GAIXOTASUNEN / IZURRITEEN PREBENTZIOA / PREVENCIÓN DE ENFERMEDADES / EPIDEMIAS	1	1	2	3	1	1	0	2	2	1	1
GAUZA GUZTIAK INGURUNE SEGURU /HIGIENIKO BATEAN EGIN DAITEZEN ZIURTATU / ASEGURAR QUE TODAS LAS COSAS SE HAGAN EN UN ENTORNO SEGURO/HIGIÉNICO	0	1	0	0	0	0	1	0	0	0	0
ETXEKO SEGURTASUNA / SEGURIDAD EN EL HOGAR	0	0	0	0	0	0	4	0	0	0	0
ERREPIDEETAKO SEGURTASUNA / SEGURIDAD EN CARRETERA.....	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
BESTERIK / OTRAS.....	9	9	9	16	9	10	5	9	13	13	7
Ed/Ee / Ns/Nc	29	26	31	26	28	29	36	24	28	27	37
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* ERANTZUNAK ESPONTANEOAK DIRA ETA ONDOREN KODIFIKATUAK. / LAS RESPUESTAS SON ESPONTÁNEAS Y CODIFICADAS POSTERIORMENTE.

Aztertutako taldeetan gehien aipatu den esanahia pertsonaren ongizatea edota segurtasuna ziurtatzeko arauak, erregulazioak dira. Dena dela, esanahi hori gehien aipatu dute lan ordaindua dutenek, klase soziala aitortu ez dutenek eta ardatz ideologikoan ezkerrean kokatu direnek. Batez bestekoak baino gutxiago aipatu dute garrantzitsua, beharrezkoa dela klase soziala aipatu ez dutenek eta goi mailakoak.

Beren burua eskuinean kokatu dutenek aipatu dute gehien sen onarekin azaltzen dela, esaldiak berak azaltzen duela esanahia.

Lan ordaindua dutenek, klase sozial baxuan eta ezkerrean kokatu direnek aipatu dute gehien lantokiko segurtasun arauak, erregulazioak direla esaldiaren esanahia.

En todos los colectivos analizados los más mencionado es que significan las reglas, regulaciones para asegurar el bienestar y/o la seguridad personal. En todo caso, quienes en mayor medida le dan ese significado son quienes tienen trabajo remunerado, no declaran su clase social y se sitúan en la izquierda.

Quienes no dicen la clase social a la que pertenecen y quienes son de clase alta mencionan en menor medida que la media que es importante, necesario.

Quienes se sitúan en la derecha son quienes en mayor medida mencionan que se explica con sentido común, por si mismo.


Quienes más mencionan que significan las reglas y regulaciones de la seguridad en el lugar de trabajo son quienes tienen un trabajo remunerado, se sitúan en la clase baja y en la izquierda.

Osasunaren eta segurtasunaren pertzepzioa / Percepción de la salud y la seguridad

“Osasuna eta segurtasunaren” esanahia / Significado de “salud y seguridad”

(ERRESUMA BATUAREKIKO ALDERAKETA / COMPARACIÓN CON EL REINO UNIDO)

Zer ulertzen duzu zuk “osasuna eta segurtasuna” esaldiarekin? / ¿Qué entiende Ud. por la frase “salud y seguridad”?*



* ERANTZUNAK ESPONTANEOAK DIRA ETA ONDOREN KODIFIKATUAK. / LAS RESPUESTAS SON ESPONTÁNEAS Y CODIFICADAS POSTERIORMENTE.

☑ “Osasuna eta segurtasunaren” esanahia buruz galdetu zaienean EAEko biztanleek Erresuma Batukoek baino gutxiago aipatu dituzte honako esanahiak: lantokiko segurtasun arauak, erregulazioak, arriskuen, istripuen eta kalteen gutxitzea, geure burua eta ingurukoak babesteko ardura hartzea, gauza guztiak ingurune seguru/higieniko batean egin daitezen ziurtatzea eta etxeko segurtasuna. Aldiz, gehiago aipatu dute garrantzitsua, beharrezkoa dela eta sen onak, esaldiak berak adierazten duela bere esanahia. Gainera, EAEn Erresuma Batuan baino gehiago dira galderari erantzunik eman ez diotenak (%29 eta %4, hurrenez hurren).

☑ Cuando han sido preguntados sobre el significado de “salud y seguridad”, la población de la CAPV menciona en menor medida que la del Reino Unido los siguientes significados: las reglas, regulaciones de seguridad en el lugar de trabajo, el minimizar los riesgos, accidentes y daños, tomar la responsabilidad de salvaguardarnos a nosotros mismos y a los de alrededor, asegurar que las cosas se hagan en un ambiente seguro/higiénico y la seguridad en el hogar. Por el contrario, responden más que es importante, necesario y que se explica con sentido común, por sí mismo. Además, en la CAPV son más que en el Reino Unido quienes no responden a esta cuestión (29% y 4%, respectivamente).

B - Laneko osasuna eta segurtasuna/ Salud y seguridad laboral

- **Lan istripuen edo gaixotasunen probabilitatea /**
Probabilidad de accidentes o enfermedades laborales
- **Laneko istripu larrien edo gaixotasunen arrazoiak /**
Motivos de los accidentes graves o enfermedades laborales
- **Laneko osasuna eta segurtasunari buruzko iritzi orokorrak /**
Opiniones generales sobre salud y seguridad laboral
- **Lan osasuna eta segurtasunari buruzko araudiaren ezagutza maila /**
Nivel de conocimiento de la normativa sobre salud y seguridad laboral
- **Lan osasuna eta segurtasunari buruzko araudiaren betetzea enpreetan /**
Cumplimiento de la normativa sobre salud y seguridad laboral en las empresas

Laneko osasuna eta segurtasuna / Salud y seguridad laboral

Lan istripuen edo gaixotasunen probabilitatea / Probabilidad de accidentes o enfermedades laborales

(GUZTIZKOAK ETA KOLEKTIBOKA | / TOTALES Y POR COLECTIVOS I)

Ondoko bi baieztapenetatik zein hurbiltzen da gehien zure iritzira? Lanean ezbehar larriren bat izateko edo lanagatik osasuna hondatzeko probabilitatea gure gizartean... / ¿Cuál de entre las siguientes dos afirmaciones se acerca más a su opinión? La probabilidad de sufrir un grave percance o un deterioro de su salud motivado por el trabajo es algo que en nuestra sociedad...


	2008ko URRIA OCTUBRE 2008	LURRALDEA / TERRITORIO			SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK GRUPOS DE EDAD			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	18-29	30-45	46-64	≥65
HOBETO PREBENITU BEHAR DA / DEBE SER MEJOR PREVENIDO.....	88	90	86	90	89	87	89	88	89	84
SAIHESTEZINA DA, EZIN DA PREBENITU / ES INEVITABLE, NO PUEDE PREVENIRSE.....	7	7	8	6	7	8	8	9	7	5
Ed/Ee / Ns/Nc.....	5	3	6	4	4	5	3	3	4	11
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES).....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

EAEko herritarren %88ren ustez lana dela eta ezbehar larriren bat edo osasun galerak izateko probabilitatea hobeto prebenitu behar da eta %7ren ustez saihestezina da, ezin da prebenitu.

Talde guztietan gehiengo nagusiak uste du lan ezbehar larriak edo gaixotasunak hobeto prebenitu behar direla. Alabaina, 64 urtez gorakoen artean iritzi hori besteen artean baino pixka bat gutxiago zabaldua dago (nahiz eta altua izan, %84).

En opinión de un 88% de la ciudadanía de la CAPV debe ser mejor prevenida la probabilidad de sufrir graves percances o deterioros de la salud debido al trabajo y un 7% cree que es inevitable, no puede prevenirse.

En todos los colectivos la mayoría cree que debe ser mejor prevenida la probabilidad de sufrir graves percances o enfermedades laborales. Sin embargo, esa opinión está algo menos extendida entre las y los mayores de 64 años (aunque es alta, un 84%) que entre el resto.




Laneko osasuna eta segurtasuna / Salud y seguridad laboral

Lan istripuen edo gaixotasunen probabilitatea / Probabilidad de accidentes o enfermedades laborales

(KOLEKTIBOKA II / POR COLECTIVOS II)

Ondoko bi baeztapenetatik zein hurbiltzen da gehien zure iritzira? Lanean ezbehar larriren bat izateko edo lanagatik osasuna hondatzeko probabilitatea gure gizartean... / ¿Cuál de entre las siguientes dos afirmaciones se acerca más a su opinión? La probabilidad de sufrir un grave percance o un deterioro de su salud motivado por el trabajo es algo que en nuestra sociedad...

	2008ko URRIA OCTUBRE 2008	ORDAINDUTAKO LANA TRABAJO REMUNERADO		HAUTEMANDAKO KLASA SOZIALA CLASE SOCIAL PERCIBIDA				EZKER-ESKUIKIN ARDATZA EJE IZQUIERDA-DERECHA			
		Bai SI	Ez No	ALTUA ALTA	ERTAINA MEDIA	BAXUA BAJA	Ed/Ee Ns/Nc	EZKERRA IZQUIERDA	ZENTROA CENTRO	ESKUIKIN DERECHA	Ed/Ee Ns/Nc
HOBETO PREBENITU BEHAR DA / DEBE SER MEJOR PREVENIDO	88	89	86	87	90	85	79	90	88	87	84
SAIHESTEZINA DA, EZIN DA PREBENITU / ES INEVITABLE, NO PUEDE PREVENIRSE	7	7	8	10	7	9	1	7	7	10	8
Ed/Ee / Ns/Nc	5	3	6	3	3	7	20	3	6	4	8
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100



Aztertutako talde guztietan gehiengo zabalak dio lanean ezbehar larriren bat izateko edo osasuna hondatzeko probabilitatea hobeto prebenitu behar dela. Klase ertainean (izatez, klase soziala aitortu duten guztiak ez dutenek baino gehiago) eta ezkerrean kokatu direnak aipatu dute batezbestekoak baino gehiago.

Aldiz, beren burua klase sozial altuan eta eskuin ardatzean kokatu dutenek aipatu dute gehien zahiezteza dela, ezin dela prebenitu.

En todos los colectivos analizados una gran mayoría dice que la probabilidad de sufrir un grave percance o un deterioro de la salud debe ser mejor prevenida. Quienes se sitúan en la clase media (de hecho, todos los que declaran la clase social más que quienes no) y en la izquierda lo mencionan por encima de la media.

En cambio, quienes se sitúan en la clase social alta o en la derecha del eje ideológico son quienes más mencionan que es algo inevitable, que no puede prevenirse.

Laneko osasuna eta segurtasuna / Salud y seguridad laboral

Lan istripu larrien edo gaixotasunen arrazoiak / Motivos de los accidentes graves o de las enfermedades laborales

(GUZTIZKOAK ETA KOLEKTIBOKA | / TOTALES Y POR COLECTIVOS I)

Zure ustez nagusiki zergati gertatzen dira lanean ezbehar larriak edo lanagatik osasuna hondatzea? /

Y respecto a los percances graves o deterioro en la salud motivados por el trabajo, ¿cuál de las siguientes sería la principal causa?

	2008ko URRIA OCTUBRE 2008	LURRALDEA / TERRITORIO			SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK GRUPOS DE EDAD			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	18-29	30-45	46-64	≥65
NAGUSIKI ENPRESARIEN AXOLAGABEKERIAGATIK / SUCEDE PRINCIPALMENTE POR EL DESINTERÉS DE LOS EMPRESARIOS.....	21	19	21	21	23	19	24	21	20	18
NAGUSIKI LANGILEAREN(EN) ZUHURTZIARIK EZAGATIK / SUCEDE PRINCIPALMENTE POR LAS IMPRUDENCIAS QUE COMETE EL TRABAJADOR/A.....	12	14	11	14	13	11	11	14	10	15
NAGUSIKI ADMINISTRAZIOAREN KONTROL FALTAGATIK / SUCEDE PRINCIPALMENTE POR FALTA DE CONTROL DE LA ADMINISTRACIÓN ...	10	13	10	11	9	11	12	9	13	7
ZERGATI GUZTI HAUENGATIK / SUCEDE POR TODAS ESTAS RAZONES JUNTAS.....	50	50	51	50	50	50	49	52	52	48
Ed/Ee /Ns/Nc.....	6	4	7	5	5	8	4	4	6	13
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES).....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Hamar herritarretatik biren ustez (%21) laneko ezbehar larriak edo osasuna hondatzea nagusiki enpresarien axolagabekeriagatik gertatzen dira, %12ren ustez nagusiki langileen zuhurtzia ezagatik eta %10en ustez nagusiki administrazioaren kontrol faltagatik. Alabaina, herritarren erdiek (%50ek) uste dute zergati guzti horientzat gertatzen direla.

Talde guztietan laneko istripu larriak eta osasun kalteak gertatzeko arrazoi nagusia zergati guzti hauek batera direla uste dute, erdia inguruk horrela baitiote.

Gizonek emakumeek baino pixka bat gehiago aipatu dute enpresarien ardura, adinean behera egin ahala ere gehituz doa aipatu dutenen kopurua.

Adin talde nagusienak (65 urte edo gehiago) aipatu du gehien langileen zuhurtziarik eza eta aldiz, gutxien administrazioaren kontrol falta.

Dos cada diez ciudadanos(as) opinan que los percances graves o el deterioro de la salud en el trabajo (21%) suceden principalmente por el desinterés de los empresarios, un 12% que suceden principalmente por imprudencias del trabajador y un 10% que suceden principalmente por falta de control de la administración. En cambio, la mitad de la población (50%) cree que sucede por todas estas razones juntas.

En todos los colectivos se considera que la principal causa de los accidentes graves y los deterioros de la salud en el trabajo son todas estas razones juntas, pues cerca de la mitad lo afirman.

Los hombres mencionan ligeramente más que las mujeres la responsabilidad de los empresarios y también se menciona algo más a medida que desciende la edad.

El colectivo de mayor edad (65 años o más) es el que menciona en mayor medida las imprudencias del trabajador y en menor medida, en cambio, la falta de control de la administración.

Laneko osasuna eta segurtasuna / Salud y seguridad laboral

Lan istripu larrien edo gaixotasunen arrazoiak / Motivos de los accidentes graves o de las enfermedades laborales

(KOLEKTIBOKA II / POR COLECTIVOS II)

